

Malen Amenabar eta Yolanda Larreategui, bien ekarpenekin osatu den albumaren aurkezpenean. **USOZ**



«Istorio triste eta gogorra», modu poetikoan kontatua

Yolanda Larreateguiren narrazioak eta Malen Amenabarren ilustrazioak 'Bi txantxangorri haritz adarrean' albumean

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Bitxia da Erein argitaletxeak eta Markina-Xemeingo Udalak elkarlanean antolatzen duen Peru Abarka Album Lehiaketa. Izan ere, bikoitza da: aurrena testu bat aukeratzeko eta saritzen da, eta bigarren urrats batean testu hori ilustratzeko proposamena.

Apirilean saritu zuten Yolanda Larreateguiren (Markina-Xemein, 1979) 'Bi txantxangorri haritz adarrean' narrazioa. Abuztuan erabaki zuen epaimahaiak, berriaz, Malen Amenabarren (Larra-betzu, 1994) 'Kaiola' zela ilustrazio

zio proposamen onena. Eta aste honetan aurkeztu da Donostian elkarrekin lan egin gabe burutu duten elkarlanaren emaitza, 'Bi txantxangorri haritz adarrean' albuma, Ereinek argitaratua.

Formatuaren inguruko aurreiritziek besterik iradoki badezakete ere, helduentzako albuma da; gauzei aurrez aurre begiratzeko dieten helduentzako, Inazio Mujika Iraola editoreak azaldu bezala «istorio triste eta gogorra» baitu abiapuntu egile biek «modu poetikoan» sortu duten lanak.

Maitasuna eta heriotza

Yolanda Larreateguiak azaldu zuen «maitasun istorio batetik, promesa batetik» abiatu zela narrazio saritua. Izan ere, bikote bateko bi kideek promesa bat egin zioten elkarri, eta heldu da betetzeko momentua. Ipuinak kontatzen du «ibilbidetxo bat, agur esan arte»,

eta idazleak bidean uzten dituen apurtxoek esker doa irakurlea istorioa osatzen eta protagonisten bizitza eta egoera itxuratzen, irudimena baliatzeko tarte zabala eskaintzen baitu egileak.

Pertsonaiei dagokienez, hitza duenak urtetsua ematen du. Haren hitzen hartzailak –Magikere bai. Idazleak, baina, gazterik nozitu zuen heriotzaren zartada, orain urte batzuk senarra hil zitzaionean. Oso gogoko zituen txantxangorrietan eta haritzetan dago haren arrastoa. Amona ere hil zitzaion Larreateguiri. «Denok daukagu joaten zaigun jendea», ale-

BI TXANTXANGORRI HARITZ ADARREAN
YOLANDA LARREATEGUI
,MALEN AMENABAR

Generoa: Albuma. Argitaletxea:Erein Orri kopurua: 44. Salneurria:

gia, «eta 'niri tokatzen zaidanean, nolakoa izango da?» galdetzeko joera ere bai. «Beldur horretatik abiatu zen» proiektu saritua. Heriotzaren inguruko tabuak –tabuak, oro har– deuseztatze gogotik ere bai, besteak beste.

«Metafora ilustratua»

«Testu errealista» jaso zuen Malen Amenabarrek haren gaineko ilustrazioak egiteko. Txakur Gorria sormen taldeko kide gisa, ohituta dago lanak partekatzea, baina gogoak zeukan «lan hau bakarrik egiteko, eta bukatu arte ez nion erakutsi Yolandari. Eskerrak gus-tatu zaion!», adierazi zuen.

Idazleak gauza asko kontatzen zituela ikusi zuen ilustratzaileak. Kontatu gabe asko uzten zituela ere bai, eta erabaki zuen «testuaren interpretazio bat egitea», «metafora ilustratua».

Hala «iraganaren zama» irudikatze, kaiola bat jarri dio bizkarean protagonistari, eta kaiolaren barruan txantxangorri bat. Magi? Gainerako guztia «pertsonaiak kontatzen duenaren arabera aldatzen doan» basoan dago. Grisak eta sosegua transmititzen duten kolore bareak nagusi diren baso aldakor eta baketsuan.

Altzoko Handiaren eta Kutixiren azken bidaiak

Bosgarren eta seigarren aleekin amaitu da Koldo Izagirren eta Irimarraren lankidetzatik sortutako saila

N. AZURMENDI

DONOSTIA. Migel Joakin Eleizegi, Altzoko Handia, zutik ez da kabitzen Erein argitaletxeak eskaini dion bildumako albumen azal-etan. Denetan dago eserita, edo 2 metro eta 41 zentimetroko gorputza tolesten laguntzen dioten

jarreratan. Kutixirekin batera egin dituen bidaietan ere izan du eragina Handiaren garaierak, baina eragozpenak baino askoz ere inportanteagoak izan dira elkarrekin, eta beste pertsonaia askorekin, bizitako abenturak.

Amaitu da ordea bidaiak, bildumako 5. eta 6. zenbakiekin: 'Altzoko Handia eta Kutixiren bekaitza' eta 'Altzoko Handia eta Kutixiren mehatxua' albumekin. Koldo Izagirrek, testuen egileak, eta marrazkiez arduratu den irrimarrako Karnele Gorroñok (Irene Iru-reta da bikoteko beste kidea) aur-

keztu dituzte biak aste honetan. Aurkezpenean, Karnele Gorroñok nabarmendu zuen 3-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako bildumaren ezaugarrietako bat dela sei aleek, istorio desberdinek kontatu arren, elkarren artean duten batasuna. Lan egiteko modua ere berdina izan da guztietan: «Tenperaz eta eskuz. Horrela lan egitea gustatzen zaigu, akats bat egiten duzun dena berregin behar baduzu ere».

Koldo Izagirrenen testuak eta ilustrazioak bateratzeko prozesua «neketsua» izan dela adiera-

zi zuen Gorroñok, joan-etorri ugarikoa. Neketsua izan arren, dena dela, «lan egiteko modu hau asko gustatu» zaie.

Koldo Izagirrek, berriaz, marrazkien nagusitasunaren alde egin zuen. «Idatzi ditudanak utzi ditut interpretazio librerako, azkean irudiek kontatzen dutelako istorioa», esan zuen. Testu laburrak idatzi ditu liburu guztietan, poetikoak, iradokitzaileak, zirikatzaileak... Luzeegiak eta gehiegi, bere ustetan, helduok letrak behar ditugulako. Zorionez, «haurrek badakite letrak irakurtzen».

May Ayim eta Raymond Carver bildu dira Munduko Poesia Kaierak bildumara

DV

DONOSTIA. 36. alera heldu da Susa argitaletxea, Beñat Sarasolaren ardurapean eraikitzen ari den Munduko Poesia Kaierak bilduma. Binaka iritsi ohi direnez, 35.a ere heldu da: May Ayimen poesia dakar horrek, eta Raymond Carverena 36.ak.

Carver estatubatuarra ez bezala, lehen aldiz heldu da euskarara May Ayim (1960-1996) afro-alemana, Garazi Ugalde Pikabearen eskutik heldu ere. Ayimen poemen antologia jasotzen duen liburuaren hitzurrean Beñat Sarasolak idatzi duenez, «Ayimen poesiaren ezaugarrietako bat (...) zapalkuntza ezkutu horiek soslai interseksionaletik begiratu eta azalaraztea». Aita ghanatarra zuen, alemaniarra ama; familia zuri alemaniar batek adoptatu eta hezi zuen. «Ez zen haurtzaro gozua izan Ayimentzat, eta horren zantzuak suma litezke bere poema batzuetan, idatzi da Sarasolak. Horrenak eta beste zenbait zauri pertsonal eta kolektiborenak: arrazakeria isila, boterearen gehiegieria, Holokaustoko utzitakoa. 36 urte zituela hil zen, bere buruaz beste eginda.

Raymond Carver (1938-1988), oraingoan, Harkaitz Canok euskaratu du, bildumari dagokion moduan haren poesiari erreparatuta, nahiz eta sei poema liburu argitaratu arren askoz ezagunagoa den XX. mendeko ipuingile handienetakoa izateagatik. Hala ere, Sarasolak hitzaurrean dioenez, «Carverrenean ipuingintza eta poesiagintza elkarloturik agertzen zaizkigu, halako moldez non poesiarekiko uzkur diren narrazio zaleentzat sarbide bikaina izan daitekeen». Urratsa erraztu dezake poemen izaerak, narratiboak baitira gehienak: «Istoriotxo laburrak kontatzen dizkigute eta inoiz alegia kutsua ere hartzen» dute.